

DONOSTIA

KRAKOVIA

MUNICH

ODENSE

SALZBURGO



aeneas

Zahartzen ari den Gizarte batean
Energetikoki Eraginkorra den
Mugikortasuna Lortzera Bidean



Zer da AENEAS?

AENEAS egitasmo europar bat da, zahartzen ari den gizarte batean aldaketa sustatzeko xedea duena energetikoki eraginkorra den mugikortasunera bidean. AENEASek haxe lortu nahi du, Europako bost hiri eta zazpi erakunde/sare ezagun biltzen dituen elkartearen bitartez:

- “Jarrera Egokiak Trukatze Sarea” sortzea, hots, zahartzen ari den gizarte batean energetikoki eraginkorra den mugikortasuna sustatzeko interesa duten hirien sarea sortzea
- AENEASko kide diren hirietan etorkizun handiko neurri malguak abian jartzea
- Garraioen arloko arduradunei eta pertsona nagusiei zuzendutako izari handiko marketing kanpainak abiatzea
- Garraioen arduradunentzat heziketa-lantegiak antolatzea
- Bidaariak eta gidariak hezteko tresna-multzoa garatzea
- Jarrera egokiak adibideak aurkeztea, bai eta horiek gauzatzeko gida bat ere
- Hiritarrak jakinaren gainean jartzea zahartzearen eta hirimugikortasunaren erronkei dagokienez

Adina eta mugikortasuna

Eurostat Europar Batasuneko Estatistika Bulegoaren arabera, EBn 50 urte edo gehiago dituzten biztanleen kopurua % 35 izatetik % 49 izatera igoko da 2005 eta 2050 urteen artean. Iraganean, pertsona nagusiak oinez edo garraio publikoan joaten ziren, nagusiki, alde batetik bestera. Gaur egun, ordea, norberaren autoa erabiltzeko joera indartsua nabari da. Beste modu batera esanda, Europak aurrez aurre dauka zahartzen ari den “autoaren belaunaldia”.

Arazo horri aurre egiteko, AENEASek hainbat neurri malgu abiaraziko du Europako bost hiritan. Neurri horiek hiri mailan garatzean, aintzat hartuko dira, alde batetik, beharizanen eta programaren helburu diren berrogeita hamar urtetik gorako hiritarren (“zahar gazteak” direlakoan) heterogenotasuna eta, bestetik, pertsonarik nagusienak, neurriko zerbitzuak aurreikusiz. Halaber, AENEASek sustatuko du Europa osoko parte-hartzaile nagusien ezagutza-trukea.



Zergatik sustatu mugikortasun iraunkorra gizarte zaharkitu batean?

Oinez, bizikletaz eta garraio publikoz ibiltzea jarduera onuragarriak izan daitezke norbanakoarentzat, bai eta gizartearentzat ere:

- **Energia-eraginkortasuna handitzen dute.** Gaur egun, pertsona nagusiek beren autoa erabiltzeko joera handia dute. Azken urteotan tokietara erraz iristeko izan den hobekuntzari esker, ordea, hiriguneetan lekualdatze asko egin daitezke garraibide iraunkorrez. Hori dela eta, bada garaia oztopo psikologikoak suntsitu eta pertsona nagusiei beste aukera praktikoa batzuk badirela sinestarazteko.
- **Osasuna hobetzen dute eta kostuak gutxitzen dituzte.** Ehun urtetik gorako biztanle-kopuru handia duten munduko hainbat tokitan egindako azterketa zientifikoek adierazi dutenez, gorputzaren mugikortasuna da bizitza luze eta osasuntsurako giltzetako bat. Gainera, adinekoak sasoi onean egoten eta istripuak ekiditen lagun dezakeen hiri-mugikortasunaren kultura berri batek kostu-murrizketa harrigarria ekar dezake.
- **Ikuspegi berriak irekitzen dituzte.** Gure mundua gazteek eta gazteentzat diseinatu da; gure gizarteak, oster, zahartzen ari dira. Hala eta guztiz ere, “rock-and-rollaren belaunaldi” horretako kideak eta duela 20 urteko pertsona nagusiak oso desberdinak dira beren bizimoduari eta itzaropenei dagokienez. Iritsi da gure jarrerai buruz gogoetak berritzeko garaia, komunikatzeko modutik hasi eta hiri-mugikortasunaren plangintza egiteko moduraino.
- **Gizarteratzea laguntzen dute.** Oraintsuko azterketek agerian jarri dute batetik bestera mugitzen direnak gai direla gizarte-bizimoduan parte hartzeko. Modu askotakoa eta energetikoki eraginkorra den mugikortasunak guztien aukerak hobetzen ditu, bakoitzaren eroste-ahalmena, sexua edo jatorria gorabehera.



Nola parte hartu?

Egin bat gurekin! Hona hemen sareko kide egiten diren hiriek dituzten aukerak:

- Heziketa-lantegietan eta bisita antolatuetan parte hartzea
- AENEASen konferentzietara joatea
- Jardunbide egokiak trukatzeko
- Ekimenak abiarazteko eskuliburuak jasotzea
- Europako beste hiri batzuekin bizipenak trukatzeko
- Postaz zein barne-webaren bitartez, inolako bitartekorik gabe informazioa jasotzea

Jar zaitez harremanetan proiektuaren koordinatzailearekin

Matthias Fiedler
Rupprecht Consult
E-posta: m.fiedler@rupprecht-consult.eu
Telefona: +49 (0) 221 60 60 55 22

www.aeneas-project.eu

AENEASko bazkideak

KOORDINATZAILEA

Rupprecht Consult (Alemania)

UDALAK

Donostia (Espainia) ● Krakovia (Polonia)
Munich (Alemania) ● Odense (Danimarka)

GARRAIO PUBLIKOEN KONPAINIAK

Salzburg AG (Austria) ● Municheko Garraio Konpainia (Alemania)

EUROPAKO SAREAK

AGE – Pertsona Nagusien Europako Plataforma ● Ingurumenaren Eskualde Zentroa (REC) Erdialdeko eta Ekialdeko Europarako)
Hiri Garraioen Europako Agintari Elkarte (EMTA)

ADITUEN ELKARTEAK

Belaunaldietarako eta Eskuragarritasunerako Zentroa (Austria)
Green City e.V. (Alemania)

PROIEKTUAREN ENBAXADOREA

Ragnar Domstad

Lehen orriko argazkien iturriak: MARIJAN SUŠENJ (bizikleta) • AGE (emakumeak autobusean) • FLICKR.COM (emakumeak trenean) • SALZBURG AG (egunkaria) WIESLAW MAJKA (oinezkoak)

AENEASek honakoen dirua jasotzen du

Intelligent Energy  **Europe**

Liburuxka honetako edukien ardura egileena da soilik. Ez dator bat, derrigorrez, Europar Batasunaren iritziekin. Europako Komisioak ez du liburuxka honetako informazioaren erabileratik erator daitezkeen ondorioen ardurarik hartzen.



Tokian tokiko jarduerak

Europa mailako jardueraz gainera, AENEASek ageriko hobekuntzak ekarriko dizkie proiektu honetan parte hartzen duten hiriei ere. Energetikoki eraginkorra den pertsona nagusien mugikortasuna hobetzeko neurrien artean hamabi aukeratu eta abian jarriko dira. Informazio gehiago eskura duzu www.aeneas-project.eu orrian.

DONOSTIA (ESPAINIA)

AENEASko kide gisa, Donostiako hiriak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Espaloietako oztopoak aurkitu eta kentzea
- Informazio-kanpaina bat antolatzea
- Garraio publikoaren zerbitzuak adinekoen beharrianetara moldatzea
- Errepideko segurtasuna hobetzea eta motorizatu gabeko mugikortasuna sustatzea

KRAKOVIA (POLONIA)

Krakoviako hiriak adinekoei eskainiko die laguntza:

- Garraio publikoak seguruago eta erakargarriago bihurtuz
- Gazteagoei zuzenduriko kontzientzia-hartze kanpaina bat eginez
- Pertsona nagusiei zuzenduriko informazio eta heziketa kanpainak antolatuz

MUNICH (ALEMANIA)

Munichen egingo diren jarduera nagusiak, besteak beste, hauek dira:

- Hirugarren adinekoei zuzenduriko bana-banako marketing kanpaina
- Ikastaroak, pertsona nagusiei bidaiarientzako informazioa eskuratzeko tresna elektronikoak erabiltzen irakasteko
- Heziketa-programa oso bat oinez, bizikletaz eta garraio publikoz ibiltzeari buruz

ODENSE (DANIMARKA)

Odenseko hiriaren lehentasunak hauek izango dira:

- Izari handiko kanpaina bat antolatzea oinez ibiltzeari buruz, adinekoei zuzenduta
- Pertsona nagusiak hirigunean zehar oinez ibil daitezkeen ibilbideak antolatu eta gauzatzea
- Pertsona nagusientzako bizikleta txangoak kudeatzea

SALZBURGO (AUSTRIA)

Salzburgon, berriz, jarduera hauek abiaraziko dira:

- Adinekoen eskura jartzea mugikortasunaren kudeaketa zerbitzu bat
- Garraio publikoaren erabiltzaileak eta autobus gidariak hezte
- Garraio publikoaren hornitzaileentzako tresna multzo bat garatzea
- Jendea garraio publikoa erabiltzera bultzatzeko kanpaina bat egitea, bertako kultura-aberastasunak ezagutzera emanez

www.aeneas-project.eu